AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5739

254/2011 EBAZPENA, urriaren 9koa, Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearena, M.ª Pilar Isla Climente andreari esleitutako Mesedeetako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak ezeztatzen dituena (Bilboko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia).

Osakidetzako Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearen irailaren 1eko 471/2005 Ebazpenaren bidez esleitu zitzaizkion M.ª Pilar Isla Climente andreari Mesedeetako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak (Bilboko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Gerentziako Zuzendaritzak honek honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– M.ª Pilar Isla Climente andreari esleitutako Mesedeetako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak ezeztatzea (Bilboko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia), berak hala eskatu duelako.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko urriaren 9tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osasun Laguntzako Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Deialdiko 8. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2011ko urriaren 9a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.